

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure negozioa aurrera eraman ahal izateko, produktuak era zuzen eta eraginkorrean garraiatuak izan behar dira. Gainera, kontuan izan behar da gure negozioak lagundu ahal dituen herrialdeak nahiko urrun geratzen direla, beraz, garraio-sistema egokiak behar ditugu produktuak dagokien herrialdera eramateko, adibidez hegazkinak eta kamioiak; izan ere, garraio-bide azkarrak eta seguruak dira, horregatik, ziurtatuta geratzen da produktua bezeroak aukeratutako lurraldera helduko dela.



Lanaren banaketari dagokionez, laurak, hau da, Marinak, Ainhoak, Iratik eta Andreak enpresaren kudeaketaz eta administrazioaz arduratuko lirateke; adibidez langileak kontratatu, jarduera guztiak planifikatu etab. Horrez gain, bezeroekiko harremanaz arduratuko lirateke, bezero potentzialak bilatuz eta merkatua ikertuz, haien beharrak asetzeko asmoz. Gainerako jarduerak kontratatutako langileek egingo lituzkete, adibidez, produktuak makinetatik biltegira garraiatu. Lagunduko ditugun herrialdetan enpresaren ordezkariak eta arduradunak egongo dira, hango herritarren eta gure arteko harremana mantentzeko. Ordezkar horiek bertako GKEen parte izango dira eta hango biztanleen artean bidalitako produktuak banatuko dituzte.

Halaber, makinetan bidaltzeko aukeran dauden produktuak supermerkatuen bat hornituko dizkigu, beraz, nahitaezko elkarte da. Gainera, gurekin elkartzen diren supermerkatuetan makinak kokatzea pentsatuta daukagu, horrela, lehiakideengandik bereiziko dira, haientzat onuragarria den era batean, jendeak erantzukizun soziala duen negozioetan kontsumitzea nahiago baitu.



Azkenik, gure enpresaren funtsezko arloa vending-makinen jarduera denez, ezinbestekoa iruditzen zaigu jarduera honetan aditua eta profesionala den enpresa jakin batekin elkartzea, hau da, vending-enpresa ekoizle batekin elkartzea. Gure enpresa arrakastatsua izan dadin, sistema berezia behar dugu, produktuak eraginkorki biltzeko eta webgunetik eskatu ahal izateko.

Lehen aipatutako hegazkin-konpainia eta supermerkatu batzuek, fundazioak dituzte:

- **AIRFRANCE:** Bere hegazkinak heltzen diren lekuetako ume gaixoentzako laguntza eskaintzen dute. Hegan egiten du afrika-iparraldean dauden Frantziako kolonia zaharretara.
- **IBERIA:** Siriako ume txiroei edateko ura eramateko fundazioa dute.
- **BRITISH AIRWAYS:** Ingalaterrako GKE batekin kolaboratzen du, mundu guztiko babesgabetasun egoeran dauden umeei laguntzeko.
- **MERCADONA:** Elikagaien bankuekin elkarlanean aritzen da. Mercadonako lehendakaria Trinidad Alfontso fundazioaren kidea da, kirola bultzatzen du pertsonen bizitza maila hobetzeko.

- **EROSKI:** Unicefekin eta mugarik gabeko medikuekin elkarlanean aritzen da.
- **CARREFOUR:** Baliabide gutxiko familiei laguntzen die, ezgaitasunik daukan seme edo alabari mantendu behar dutelako eta CNSE fundazioarekin kolaboratzen du.
- **EL CORTE INGLES:** Kanpaina batzuk egiten ditu elikagaiak emateko, txiroei edo laguntza dutenei emateko. Unicefekin eta elikagai- bankuekin kolaboratzen du.